



Nafarroa Bai

## **ALDAKETARAKO**

Zenbaiti kasu egitera, iduri luke Nafarroak bere izatea duela jokoan hurrengo maiatzaren 27ko hauteskundeetan. Halakoen ahotan, zer eta Nafarroaren nortasunaren iraupena erabakiko da Udaletako nahiz Foru Parlamentuko ordezkariak aukeratzen ditugunean. Gezur biribila. Nafarroan, hauteskundeak erabakigarriak izanen dira egiazki, baina ez horregatik. Agintean ia-ia hiru legegintzaldi egin dituen gobernu atzerakoi batek segituko ote duen ala gobernu aurrerakoi batek kenduko dion tokia, horra gure eskuetan egonen den auzia.

UPN nagusi izan dugu azken urte guztietan, hasieran bakarrik eta gero CDNrekin batean. Denbora horretan ikusi dugu nola areagotu diren postfrankismoko ajeak. Nabarmenena, Nafarroa ofizial baztertzaila hori, “kanpoko etsaiarekin” itsutua eta bertako biztanleak behin eta berriz bereizten dituen jendea izutu eta isilarazi beharrez: nafar onak batetik, nafar gaiztoak bestetik. Bitartean, indarkeria ezin gainditurik ibili gara, eta horrek lagun egin dio egoerari; hain zuzen ere, UPNk haren iraupenaren aldeko apostua egin du, gobernuan betikotzeko esperantzan. Propaganda ofizialak aurkezten digun irudian, berriz, erkidego oparo bat ageri da, tradizionalismo osasuntsua eta ongizate maila inbidiagarriak bateratzen dituen.

Kalaka horren itzalpean eraman den politikak talde ekonomikoen nahikundeak lehenetsi ditu gehiengoaren interesen aurretik, eraso egin dio gure ondare historikoari, gure kulturari eta gure hizkuntzari, hondamenera eraman du ingurumena, lurraldeen arteko desoreka bultzatu du eta hirigintza hainbestearino du puztu ezen, eraiki eta eraiki ari badira ere, ez baitu bermatu gazteek eta sektore ahulenek etxebizitza izatea. Politika horrek berak eragin du zerbitzu publikoen gainbehera irakaskuntzan, osasunean edo gizarte zerbitzuetan, eta ezikusia egin die industriaren krisiaren lehen senaleei.

Ez du zertan beti hala izan, ordea. Jende frankok urteak ditugu ametsean eta lanean, Nafarroa ezberdin baten alde. Nafarroa ezberdin bat, guztiei tokia eginen diguna, zernahi direla gure atxikimendu partikularrak, gure hizkuntza, gure sorterrria edo gure aukera sexuala. Nafarroa ezberdin bat, bere ondarea eta bere ingurumena begiratuko dituen, euskara babestuko duena, sektore

ahulenez arduratuko dena, bere zerbitzu publikoak bereziki zainduko dituena eta bere herritarrei aurrerapen eta ongizate maila hobek ekartzen ahaleginduko dena, bere erantzukizuna atzenu gabe mundu behartsu eta aldakor honetan. Nafarroa ezberdin bat, bai, partikularra eta unibertsala bat egiten jakinen duena, bakean bere oroimenarekin, ekina, parte hartzailea, solidarioa.

Gisa horretako Nafarroa ez da ero baten eldarnioa. Ez gara ameskerietan ari. Premia eta eskubidea da. Nahi izanez gero, posible izaten hasiko da, heldu den maiatzaren 27an aldaketarako botoa ematen baduzu.

[Erakutsi zure atxikimendua!](#)